

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3553

EBAZPENA, 2026ko uztailaren 24koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez izendatzen baitira 2026. urtean kultura-sorkuntza artistikoa babesten eta sustatzen duten kultura-gune independenteentzako (Sorgune) dirulaguntzak emateko Balorazio Batzordeko kideak eta batzorde horren berri ematen duena.

Ikusi da 2026ko ekainaren 9ko Agindua, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita 2026. urtean kultura-sorkuntza artistikoa babesten eta sustatzen duten kultura-gune independenteentzako dirulaguntzak emateko (Sorgune). Agindu hori 2026ko ekainaren 17ko EHAAn argitaratu zen (2659. zk.).

Kontuan hartu da agindu horren 12. artikulua xedatzen duela ezen, aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko dela, eta Kulturako sailburuordearen ebazpen baten bidez batzordekideak izendatuko direla eta batzordearen osaera argitaratuko dela.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Balorazio Batzordeko kideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitara ematea.

Balorazio Batzordeko kideak:

Lehendakaria: Ana Lopez Asensio andrea (Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako zuzendaria). Lehendakaria ez badago, Batzordeko kide zaharrenak ordezkatzeko du, 2026ko ekainaren 9ko Aginduaren 12. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Agindu horren bidez, deialdia egiten da 2026. urtean kultura-sorkuntza artistikoa babesten eta sustatzen duten kultura-gune independenteentzako dirulaguntzak emateko (Sorgune).

Batzordekideak: Maria Perez Fernandez andrea, Ane Rodriguez Armendariz andrea eta Iker Tolosa Lafuente jauna.

Jose Maria Uriarte Gonzalez jauna (Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko teknikaria) izango da idazkaria. Idazkaria ez badago, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 19.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardungo da.

Bigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea, herritar orok horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 24a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.